

BILBON

Txosnetatik ezin eskapa

BILBO

Izerdi asko bota dute Bilboko konpartsetako kideek txosnak prestatzen. Pasa diren egunetan ere hainbat gaupasa egin dituzte berauek zaintzen, baten batek egun osoko lana pikutara bidal ez diezaien. Dena den, musikarik gabeko gaupasa hauetan ere egon da girotxoa, biharamunean batzuen aurpegietan antzeman dugunez.

Orain txosnetako 'martxa' mar txan dago. Jakina denez, ez dago Bilboko jairik txosna barik. Hauek erakusten dituzten dekorazio eta musikak bakoitzaren nortasuna erakusten dute. Eta zenbat txosna daude aurten? Ba hogeitazazpi konpartsa daude baina denek ez dute txiringittoa ipini. Benetan, saiatu gara txosna kopuru zehatza jakiten, baina aitortu beharra daukagu oraingoan ez dugula gure nahia bete. Arenalerantz abiatu ginen, zenbaketa egin asmoz. Baina, badakizue, txosna bat, pote bat. Horrela erronda bukatu ondoren ez gara ados jarri. Batek 10 daudela, besteak 22, eta haren ustez 18 ●

Portugaleko «miurak» gaurko korridan

BILBO

Portugaleko Palha ganadutegiko zezen beldurgarriak izango dira gaur Vista Alegreko zezen plazan. Portugaleko Palhak iaz ere hemen izan ziren. Gaurko korrida zaila eta gogorra izan daiteke. Palhak, Portugaleko zezen txikiak baina oso arriskutsuak dira.

Aste Nagusiko bigarren korridan, ez dugu torero famaturik ikusiko, palhaktoreatzen toreroak benetan bizitza arriskatu behar duelako. Ondorioz, kontratu gutxi duten toreroek besterik ezean, *miura* bezalakoak toreatzea onartzen dute, baina izen handiko toreatzaileak ez dira ausartzen.

Palha ganadutegi portugaldarreko zezenak iazko Aste Nagusian ere izan ziren, eta ikaragarriak suertatu ziren, oso biziak izan zirelako eta toreroak errespetu handiz toreatu zituzten.

Gaurko korridari Tomas Campuzanok emango dio hasiera. Campuzano ez dago bere momenturik onenean. Hala eta guztiz ere gero eta gehiago toreatzen ari da aspaldi ho-

Abuztuak 17

Vista Alegre zezen plazan, 18.00etan.

Ganadutegia: Palha.

Toreatzaileak: Tomas Campuzano.

Pedro Castillo.

Juan Cuellar.

netan.

Urte batzutan baztertuta egon ondoren Pedro Castillo zezenen mundura bueltatu zen orain dela pare bat urte, eta azken bi urteotan onera egin du nabarmen. Adituek diotenaren arabera, horrela jarraituz gero, Campuzanok ez omen ditu *miura* bezalako asko toreatuko eta laster, bera ere zezenketak aukeratzeko gai izango da.

Aste Nagusiko bigarren korrida honetan parte hartzen duen torerorik ezagunena dugu Campuzano, eta egia da bai kartela eta indarra hartzen jarraitzen badu ez dituela *miura* eta

bitorino asko toreatuko etorkizunean.

Juan Cuellar Madrileko Colmenar de Oreja herriko toreroak, ekitaldi bikaina eskaini zuen iaz Bilbon egin zuen korridan, benetan bizia arriskatu bait zuen orduko hartan. Iaz lortutako merituek Bilbora ekarri dute aurten ere eta badirudi gauzak nahiko ondo doazkiola, orain gutxi Baionan belarri bat lortu bait zuen. Cuellarrek daukan dena ematen du zezen plaza.

Beraz, zezen arrikutsuak ikusi eta beldur pixkat pasa nahi dutenek, badakite gaur arratsean nora joan, seietatik aurrera Vista Alegreko zezen plazan.

Bihar, berriz, Felipe Bartolome ganadutegiko zezenak toreatuko dituzte. Aste Nagusiko hirugarren zezenketa honetan torero ospetsuak bilduko dira Vista Alegreko zezen plazan.

Ikusgarritasunik ez da faltako biharko korridan. Ortega Cano, Cesar Rincon eta Joselito toreroak daukaten onena ematen saiatuko dira Bilboko zezenketak pisu handia bait dauka ●

Antzerki espainolaren hiriburu

BILBO

Bilbo antzerkiaren hiriburu bihurtzen omen da udan, eta ez da gutxiagorako, egun hauetan hamasei antzerki obra bait daude ikusgai Bizkaiko hiriburuko zortzi txoko ezberdinetan. Nongo antzerkiaren hiriburu bihurtzen den da kontua, Madrileko antzerkialdian ikusle goaren oneritzia izan duten obrek osatzen bait dute funtsean antzerki egitasmoa. Genero ezberdinetako hamasei obra izango dira ikusgai Bilbon abuztua eta irailean.

Arriaga antzokian, abuztuaren 17tik irailearen batera, atzo aurkeztu zuten Adolfo Marsillach-en 'Feliz aniversario' obra taularatuko dute Julia Gutierrez Caba eta Alberto Mendozak. Lan honetan, emakume

batek bere ibilaldiak gogoratzen ditu bere 50. urtebetetzean.

Abuztuaren 16tik 22ra, Astoria antzokian, Amparo Larrañaga eta Iñaki Miramonek 'Una pareja singular' antzeztuko dute. Parisen karteleran bi urte daramatzen Jean Noel Fenwick-en obra hau, komedi barre-garri bat dugu.

Ana Diosdadorek 'Trescientos veintio, trescientos veintidos...' obra izango da areto berean abuztuaren 23tik irailearen 3ra. Obra honetako aktore-aktoreak Luis Merlo, Eva Isanta, Manuel Tejada eta Maria Luisa Merlo dira. Komediak pisu handia izaten du Aste Nagusiko jaientan, egun hauetan inguruko herrietatik etortzen den jende gehienak nahigo izaten bait du komedia ikustera joan obra serioagoak baino. ●



Festa Giroan.

Beste Aste Nagusi baten atarian, bilbotar guztiei eta egun hauetan bisitari izango ditugun guztioi Festa zoriontsuak opa nahi dizkiegu.

Izan dadila festa giroa, Aste honetako izpiritu nagusia.

Has bedi Festa.

CAMARA DE COMERCIO, INDUSTRIA Y NAVEGACION DE BILBAO

BILBOKO MERKATARITZA GINTZA ETA ITSASKETA-ETXEA



HARA zer aurkituko duzun erosketak egitera joan zarenean Corte Ingles-era. Zer egiten duten baserritar horiek markesina gainean? MARISOL RAMIREZEN argazkian agertzen diren koadroak ezagunak dituzu; Losadaren 'Txistulariak Begoñan' eta Artetaren 'Erromeriara' koadroak dira. Arte Ederretako museoan ikusiak bazenituen ere orain kalean ikustean erabat desberdinak irudituko zaizkizu. Ez dute ez ideia txarra eduki Corte Ingles-ekoek; jendea ez doala museora, ba, museoa eramán jendearengana.